

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Begoña Lizaso Eizmendi

*Errenteria,
Gipuzkoa
(1922)*

Aurkibidea



Biografia



Aita arotza zuen, eta Biteri kaleko Altzari lantegiko etxean bizi zen familia osoa, Erreterian. Etxean beti izan dute musikarako eta bertsotarako afizioa. Aita, Guillermo Lizaso, Erreteriko Txistulari Bandako kide zen eta baita anaia Alejandro ere. Oso txistulari ona omen zen azken hau eta "Eusko gudariak" kantaren sorrerarekin lotzen da. Begoña Tolosan oporretan zela hasi zen gerra, eta anaiak gudari joan zitzaizkion. Bera, aldiz, Tolosako izebaren baserrira joan zen bizitzera, amarekin batera. Han ezagutu zuen bere senarra izango zena. Horrela, kaletik baserrira ezkondu zen, Hernialdera. Han gogor egin behar izan du lan beti, nahiz kalekumea izan, lanerako balio duela erakusteko. Baita erakutsi ere.

Zintak

ERR-001

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Data:** 2010-01-11
- **Iraupena:** 108 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Errazkin, Aitor

Pasarteak

1. Etxean gazteleraz hitzik ez

- **Erref:** ERR-001/002
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:02:17. **Bukatu:** 00:04:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Espainiako Bigarren Errepublikak eskolarako adinean zela harrapatu zuen Begoña, eta aitak aukera izan zuen bezain laster, euskaraz ikasi ahal izango zuten eskola batera eraman zituen alabak. Izan ere, aitak debekatua baitzien etxean gazteleraz egitea.</p>

Transkripzioa

- Herriko eskolaa o...?

- Bai, juten giñan. Baiño ordun zeon Alfonso XIII. Zer zan ba ordun? Ze klase Alfonso XIII... erregia zeona. Gero hurrena etorri zan republika. Eta republika etorri zanian, Erreterin bi ikastola jarri zittuen. Nere aittak bai azkar asko españolati aterata ikastolaa! Eske nere etxian hitz bat ezin zan erderaz in, e!

- Ez, e? Galarazita?

- Ezta hitz bat´e! Ni aittak bi aldiz jo niñun! Batian, gendun, hola, fabrikatik etxea, hola, pasillo bat, eta esaten zigun: "Hemen ez ibili txinguan!". Ta beti hantxe gu´re ba! Ta bai-ta-ez-ta etorriko ta. Ai giñan txinguan [...], atia iriki [zunian]nei iya muturrez aurea bota ta "Gaiñea erderaz! Oain´e hemen ta gaiñea erderaz!". Eskailletan korrika abittu nitzan. Bai, lau zankadataa pasa ta hua pasaportia eman ziana! A! Nere lagunai´re esaten niyen, e, euskeraz ez [bazeikiyen]: "Cuando viene mi padre, callaros, ¿eh?".

- Benetan, e?

- Bueno! "Callaros cuando viene. Si le veis a mi padre, callaros". "Ez al do lagunik euskaldunik, o?". Jo. Eguardin, zea, `Euzkadi´ periodikua hartzen zun, Bilbaon itten zan ta. Eskolatik etxeakon nik eramaten non ta. Egun batian juten naiz eskolatik eta: "Buenas tardes". "Zer da hoi?" altxa ta "Aide, e! Baiño beheko atariko ateaiño, e! Ta tinbria jota etorri!". Jolin, hua ikara sukaldian sartzeko. "Ia, ba! Ia, ba!". Kendu zizkiun "Buenas tardes" esateko goguak!

2. Batzokian antzezle

- **Erref:** ERR-001/003
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:04:31. **Bukatu:** 00:06:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

<p>Giro erdalduna omen zen Erreterian Begoña haur koskorra zenerako. Hala ere, Begoña dio eurek nahiko inguru euskalduna zeukatela, izan ere, aita eta anaia nagusia batzokian ibiltzen baitziren. Antzerki obraren bat antolatu izan zenetan, tartean ibili omen zen Begoña, eta baita 'Joxe Gergorio ta Mari Piliparen ezkontza erabakia' izeneko obran parte hartu ere, besteak beste.</p>

Transkripzioa

- Eta, gaiñontzian, Erreterin, erdera dexente hitz egingo zan garai haitan.

- Bai, bai, dexente zan. Baiño euskera´re... Ez dakit ba gu euskaldun tartian ibiltzen giñalako edo... poliki. Gure aittan zea... taberna... o zea guziya Batzokiya zan. Anaiak´e bai. Anaia negun, zaharrena, bea aitzen zan antzerkitako zuzendari ta kargu. Bai. Zeak, dekoraziyo guzik kanbiatu

ta danak. Ni're hiru antzerkitan atera nitzan. Neska koskorra tartian behar zan ta ni're atera nitzan.

- Ta ze elkartek iten zitun hoiek? Hoiek ere Batzokiko jendiak? Hor... euskal mugimendua behintzat.

- Batzokiko jendiak, bai.

- Ta nun iten zenituen ba antzerkik?

- Batzokin.

- Bertan?

- Bai. Urte baten nere antzerkia tokatu zan, bai, karnabal batzutan-ta Tolosaa etorri ta Tolosako Batzokin...

- In zenuen?

- In gendun, bai. `Joxe Gregorio eta Mari Piliparen ezkontza erabakia'.

- Hoi al zan?

- Hoi zan, bai.

- Ta zu zein ziñan? Ze pertsonaje?

- Ni? Ba nitzan neska koskor bat. Ta, zean, jun giñan festaa, bi ahizpa giñan-ta, nere ahizpa ta ni, ta, zea, jun giñan festaa. Ta etorritakon, ni nere ahizpa nola ibili zan ta ze in giñun-ta kontatzen. Ni "de kontaktillu".

- Eta hoi, zure anaia ibiltzen zan, ordun, zuzendari?

- Bai.

- Delineante ikasi zun hua?

- Bai. Bestia... bestia zan txistulariya, Erreteriko Bandako txistulariya.

3. Alejandro Lizaso Eizmendi, anaia

- **Erref:** ERR-001/004
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:06:29. **Bukatu:** 00:08:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

<p>Alejandro Lizaso, Begoñaren anaia, txistulari famatua izan zen. Begoñak ematen digu bere berri. 'Eusko gudariak' jatorrizko ereserkiari moldaketaren bat egina da Alejandro.</p>

Transkripzioa

- Bai, hor bada zean argazkiya.

- Nola izena zun zure aitona?

- Nere aittak?

- Bueno, zure aita.

- Guillermo Lizaso. Eta bertsok'e idazten zittun.

- Hiztuna 2: Harek ez al zun asmatu `Eusko Gudari'an letra edo?

- Hiztuna 3: Hua zan Alejandro.

- Alejandro beste...?

- Hiztuna 3: Bere anaia. Bere anaiak, `Eusko Gudariak' beak sortutakoa da.

- Zure anaiak o zure osabak? Zure anaiak?

- Nere anaiak. `Eusko Gudariak'... Aurreneko letra tristia iruditu emen zitzaion ta gero "Irrintzi bat entzun da" hoi. Ta gero, klaro, mendia, zeara, frentea zijoaztenen beti hua "Irrintzi bat entzun da" iñez.

- Beak jarri ziyon irrintziyan esaldi hoi? O dana goitik behera?

- Dana, bai.

- Dana goitik behera, e?

- Hiztuna 2: Jende azkarra, zea!

- Ilustria familiya, e?

- Ordun, 36ko garaiyan, ia txistulariik onena jotzen zuen. Irabazi zittun: konkurson Hondarrabin bigarren geratu zan; gero hurrena lehenengo geratu zan. Berriz´e onena zanai irabazi in ziyola ta gero Erreteriko Banda jun zan Bilbaora konkursoa, ta han´e irabazi in zuen. Eta han irabazitako eta beste irabazitako domiñak utzi zittun aberriyantzako, armak erosteko behar baldin bazittun´e. Ta bea gerran hil zan.

- Aittona... zure aitta?

- Anaia. Alejandro.

- Ordun, sarik irabazi zittuna Alejandro izan zan?

- Bai.

- Baiño aitagandik ikasita?

- Ba, aitagandik o... ez dakit, ba. Aitagandik solfeua ta. Gero Isidro Ansorena o harena´re uste det...

- Harekin ikasten zun?

- Uste det baietz.

4. "Nire tokia mendian dago"

- **Erref:** ERR-001/005
- **Iraupena:** 0:04:28. **Hasi:** 00:08:34. **Bukatu:** 00:13:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Gerra hasi zen garaian Tolosako izebarekin oporretan zen Begoña, eta ezin izan zen Erreteriarra itzuli. Ez zuen familiarn berririk. Erreteriar hartu zutenean, aita joan omen zitzaien etxekoei, handik ihes egin behar zutela esanez. Etxekoek kontatuta daki Begoñak zer nolakoa izan zen frontean hil zuten bere anaia Alejandroren despedida.</p>

Transkripzioa

- Bale, ordun, berriz´e bueltatuko gea. Erreterin zeunden zu, neska koskorra ziñan, eskolan zenbiltzen... Eta esan diazu oporretaa etorri ziñala?

- Bai. Nere ahizpa zaharragua zan ta hua ekartzen zun. Hara! Hau erraiña, horren emaztia.

- Erraiña: Zuk segi zure rollon.

- Ahizpa ekartzen zun ta "Ama, ni ez nazu behin´e eramaten" ta "Bai, eramango zaittut ba, eramango zaittut", ta hala ekarri niñun izeban etxea, ta hoi gertatu ba, gerra hastia. Ta gero ezin jun festetaa. Damutu zitzaiean, baiño alperrik.

- Nora jun ziñan oporretaa? Tolosako auzo batea?

- Tolosako izeban etxea.

- Nun zan hoi?

- Ba, Barrio Urzabal, Urzabal baserriya.

- Lizartza aldea?

- E?

- Lizartza aldea?

- Lizartza aldea.

- Oporretaa izaban etxea. Eta han zeundela, zuk oporretan, osea, kaletik baserrira junda, zer iten zendun? Itxulen-ta ibiltzen ziñan? Aintzen zizuen o...?

- Ez, ni... jolasen o, ze ibiliko nitzan? Izebakin zerbaitte. Ta gero, hala, ba, Erreenteriye ba... ya Erreenteria sartu zianen, aitta jun zitzaiera ta esan ziyela: “Ahal dittuzuen gauzak hartu ta guazen. Laister etorriko da kamioien bat eta alde ein beharra daukeu”.

- Hoi zu izaban etxan ziñan bitarten?

- Ni izaban etxan neon. Nik ez nekin ezerre. Haik han zeuden, Erreenterin, ta ni hor. Ta ni nola ezin nitzan pasa. Ta gau batian Alejandro honek esan emen ziyen: “Gerraa jun beharra daukat, ba. Frentea noa. Ez dakit biziik etorriko naizen o... Biziik baldin banaiz, etorriko naiz. Hiltzen banaiz, berriz, ba! Ze inporta dio ba oain hil o hemendik larogei urtea hil? Total, Jainkoai kontu gutxigo eman beharko dixkat”. Eta, klaro, hala hasi zanian, ama negarrez. Ta esan zula: “Ba! Geo, zuek´e on-onak izan, e? —beste ahizpai esan ziyon— Zuek´e on-onak izan. Ta geo, azkenian, juntatzen geanian danak Josepeteko zelaiyan, nik txistua joko det. Jo ta jo! Baiño jendia nekatuta´re jo ta jo aiko naiz. Eta San Pedroi esango diot: hi, San Pedro, ekar zak sagardua!” Eta orduntxe parra atera emen zitzaion amai, ta “Bueno, ya banua. Ama parrez uzten det, ta ya banua”. Hala segi emen zun. Hua, egun batian, anai zaharrena —zeatzen zittun hoi ta Batzokin ibiltzen zan hoi— egun batian, zauritu zankuan. Eta, klaro, ya [ospitalea alleatzen] ai giñela, bidian kotxian bala galdu bat etorri ta txoferra hil. Eta geo kotxia hara ta honea, ta baztarren geratzea egokittu. Hala, hurrena zijuan kotxiak hartu emen zun, ta Gernikako ospitalea eraman zula. Ta hurrengo egunian, anaia txikina, Sabin, frentea juteko, Alejandro anaiai esatea ondo zegola Felipe. Ta harena jun, ta bestia hila zala. Bat eritu dan notiziyakin jun ta bestia hil zalako notiziyakin buelta. Ta Jose Antonio Agirre lehendakariyak nahi emen zun Frantzia pasa gure Alejandro hoi, baiño “Ez, nere lekua mendian dao” erantzun emen ziyon. Haren destinua han egongo zan.

5. Familia guztia "zerrenda beltzean"

- **Erref:** ERR-001/007
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:18:25. **Bukatu:** 00:19:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:

<p>Tolosan zeudela Erreenteriara bisita bat egitera joatea erabaki zuten Begoñak, amak eta ahizpek, baina lagun batek handik joateko esan omen zien, haiek atxilo hartzeko agindua emana zegoela eta. Izan ere, Itxarkundia batailoiko komandantea eta kapitaina baitziren Begoñaren anaia Felipe eta Alejandro.</p>

Transkripzioa

- Gero, hala, esan deana: nere ahizpa-ta etorri-ta in zianian, “Erreenteria buelta bat ingo al deu?”. Hola, gure ahizpan lagunak sarrera xamarren bizi zian. Jun giñan ta “Garbiñe, baiño etorri al zeate? Jun zaittezte e! Lista negran zaude ta detenitu ingo zaittue ta!” Bueno, hurrengo tranbia ahal gendun bezela hartu ta akabo! Gero Erreenteria jun? Jun hai!

- Zer zan ba "lista negra" hua?
- Detenitzeko, zean, listan zeola.
- Reketek idatzita?
- Klaro!
- Eta zuen famili guztiya egongo zan "lista negra"n.
- Bueno! Nere anaia Felipe horrei bi "pena de muerte" atera zizkan, prisionero in ta Santoñan kartzelan egon zanen.
- Hua're, Felipe're, gudari sartu zan?
- "Batallón Itxarkundia"ko komandantia zan. Eta Alejandro, berriz, kapitana.

6. Berri txarrak

- **Erref:** ERR-001/008
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:19:42. **Bukatu:** 00:21:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

<p>Lagun bati esker jaso zuten Begoñaren etxekoek frontera joanak ziren lau senideren berri. Alejandro hila; Felipe preso Santoñan, bi heriotza-zigor egozten zizkiotela; aita eta Sabin, seme gazteena, Frantziara ihes egiten saiatzera zihoazen.</p>

Transkripzioa

- Ba, prisionero Laredon-o in zuen, ta gero aurrena Santoñaa. Eta guk, klaro, ez gendun gizonan berriik ezer'e, hainbeste denbora! Ta gero, hemengo bat, harek bi koiñadu zittun junak eta jun zan ta harek ekarri zun notiziya: Alejandro hil zala ta Felipe Santoñako kartzelan zeola, bi "pena de muerte" atera zizkela, eta aitta ta Sabin, gaztena, berriz, Frantzia pasa ziala. Orduntxe lasaittu zala esan zun Felipek, ya haik Frantziako bidian jarri zittuenen. Zegatikan, zea, mutil koskorra balitz bezela, nola umek-eta bakarrik, umek eta zaharrak bakarrik pasatzen zittuen barkun, behintzat mutil koskorra balitz bezela, galtza motxak eta zeakin. Ta aitta, berriz, bizarra ta alkandora zahar batekin ta zean, ta behintzat Frantzia pasa zittuen ta. [Alperrik] zan. Ez dakit zenbat denbora pasa zuen ta, azkenian, etortzia... etorri nahia, etorri nahi bazeuken, baiño 41ko kinta zan, ta etortzen bazan, Francon aurreneko frentea eramango zuen.
- Hori Sabiñeatik ai zea, txikiyaatik?
- "Primera línea". Komerik, bai. Ta gero, hala, ba, Urzabal hortan bizi giñan ba gu're. Eta bueno.

7. Anaia Feliperen karta Santoñako kartzelatik

- **Erref:** ERR-001/012
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:28:46. **Bukatu:** 00:30:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Hamar-hamabi lagun fusilatzen omen zituzten egunero Santoñako kartzelan. Moja batzuen bitartez, Felipe anaiaren eskutitza iritsi zitzaien. Hark ere garbi asko omen zuen edozein egunetan bere txanda izan zitekeela.

Transkripzioa

- Anaia zaharrena, esan deana, delineante, aparejadore estudiatzen aian; ya azkeneko esamíña falta zitzaion, ya setienbren. Eta gero, hoixe. Gero Santoñatik pasa zuen Bilbaora kartzelaa, ta gero handik Burgosa. "Pena de muerte" kendu zizkenian, "ya behintzat ez due hilko". Egunero hamar lagun hiltzen emen zittuen. Lista jartzen emen zuen. Ta gauian jun ta "holako ta holako", kraak, eta berriz'e kraak, atia, "holako ta holako". Ta karta bat, klandestino pasa zigun mojak-o bazeudela ta; hoi jartzen ziun: "Hemen egunero hamar o hamabi hiltzen dittue, ta neri're noiznahi iritsiko zait hiltzeko ordua. Eta ez diot besteik eskatzen Jainkoai, irmo eta tinko, gizonki jokatu dezatela fusil aurrían".

- Hoi idatzi zizuen, e?

- Bai.

- Ta nola alleatu zitzaizuen karta? Moja bitartez?

- Bai.

- Holako gauzak iten zituen?

- Onbre!

8. Errazionamenduaren neurrira

- **Erref:** ERR-001/014
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:31:27. **Bukatu:** 00:33:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerra aurretik baratze txiki bat bazuten Erreterian, baina gerraostean, behin Tolosa aldera joan eta Erreteriarara itzuli baino lehen, errazionamenduak agindutako neurrira ase behar izan zuten gosea. Dirua zen etxeetan, aldiz, estraperloan ekarritako jakiekin betetzen omen zituzten errazionamenduak utzitako hutsuneak.

9. Beti etxe berean zerbitzatzeaz nekatu

- **Erref:** ERR-001/015
- **Iraupena:** 0:05:11. **Hasi:** 00:33:25. **Bukatu:** 00:38:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Begoñak jatekoa eskura izan zuen beti neskame lanetan aritu zen lehen etxe hartan. Hala ere, ez zegoen gustura, eta etxez aldatu nahi izan zuen. Azkenik, amarenera itzuli behar izan bazuen ere, lortu zuen bere helburua: neskame ari zen etxe hura uztea, nola edo hala.

10. Neskamearen lanak

- **Erref:** ERR-001/016
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:38:36. **Bukatu:** 00:42:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Xehetasun handiz ematen digu Begoñak neskame ibili zeneko bere eginbehar guztien berri.

11. Senargaiarekin gezurra lehen hitzetik

- **Erref:** ERR-001/017
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:42:11. **Bukatu:** 00:44:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Tolosako inauteri batzuetan ezagutu zituzten Begoñak eta ahizpak, gerora senar izango zituzten bi mutilak. Une harekin ongi gogoratzen da Begoña.

12. Ezkondu ala ez?

- **Erref:** ERR-001/018
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 00:44:29. **Bukatu:** 00:48:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Begoñak nahikoa zalantza eta kontu ibili zuen senargaiarekin ezkondu ala ez erabakitzeko. Batetik, kalekoa zen bera eta baserrikoa senargaia, eta bestetik, ahizpak eta amak aholku kontrajarriak ematen zizkieten... Azkenik, senargaiaren etxera ezkontzea erabaki zuen.

13. Norberaren balioa frogatu behar denean

- **Erref:** ERR-001/019
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:48:02. **Bukatu:** 00:51:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Kaletik baserrira ezkondu zen Begoña, eta bereganako zalantza dezente sumatu zuen senarraren familiakoengan. 'Balioko al zuen baserriko lanerako?' 'Eutsiko al zion hango bizi martxari?' Bereganako zalantza horiek erronka gisa hartu eta nora ezkondu zen ederki zekiela frogatu nahi izan zuen Begoñak.

14. Senar-emaztegaiei harremana formaltzea

- **Erref:** ERR-001/021
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:52:07. **Bukatu:** 00:54:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Herritako jaietan behin eta berriz elkar topo egitearen poderioz formaldutako omen zen Begoña eta senartzat hartutako mutilaren arteko erlazioa, eta berdin, ahizparena eta Begoñaren koinatua izango zenaren artekoa. Hala ere, topo egitea ez zen beti kasualitatea izaten.

15. Talorik ederrenak

- **Erref:** ERR-001/023
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:57:49. **Bukatu:** 01:00:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Ederki moldatu zen Begoña baserriko bizitzara. Talo ederrak egiten bazekiela argi utzi zien behintzat senarraren etxekoei.

16. Baserriari lotuta bizi

- **Erref:** ERR-001/024
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 01:00:57. **Bukatu:** 01:02:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Begoñak ez zion beldurrik izan senarraren jaiotetxera ezkontzeari. Harrez gero, baserriari lotuta biziko zen, hala ere. Urtean behin egiten zuten osteratxoren bat edo beste.

17. Zortzi seme-alaba

- **Erref:** ERR-001/025
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 01:02:36. **Bukatu:** 01:03:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

Zortzi seme-alaba izan zituen Begoñak, eta berak dioenez, haurdunaldi guztiak onak izan ditu.

18. Etxean urik ez

- **Erref:** ERR-001/026
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 01:03:06. **Bukatu:** 01:04:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Senarraren etxera ezkondu zenean, etxean bertan urik ez izateak eman omen zion "hozkirik" handiena. Horretara ere ohitu behar izan zuen, ordea.

19. Hamabost egun luze ama ikusi gabe

- **Erref:** ERR-001/027
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 01:04:25. **Bukatu:** 01:06:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Begoña Hernialdetik Tolosara jaitsi ohi zen mezetara, hartara, ama eta ahizpei bisita egiteko aukera izaten zuen. Hala ere, urtean zehar "bost peztakoa" zelakoa osatzen zuten bost meza edo elizkizun izaten omen ziren, urtean zehar banatuak, eta haietara ez omen zen huts egiterik. Meza haiek Hernialden entzun behar izaten zituen, eta hamabost egun luze joaten zitzaizkion ama ikusi gabe.

20. Ezkonbidaian negarrez

- **Erref:** ERR-001/028
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 01:06:01. **Bukatu:** 01:07:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak

Laburpena:

Hernialdera ezkondu zenean, mira egiten zien amari eta ahizpei. Haien hutsunea sumatzen zuen. Izan ere, gerra garaian pairatutako denak asko batu zituen ama-alabak.

21. Argindarrik ez baina ilunpearri ihes

- **Erref:** ERR-001/030
- **Iraupena:** 0:03:41. **Hasi:** 01:07:48. **Bukatu:** 01:11:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Gerra garaian Errenteriatik ihes egin eta osaba-izeben baserrian hartu zuen babes Begoñak berak lehenik, eta bere amak eta bi ahizpek ondoren. Baserri hartan ez zen argindarrik, eta Begoñak kontatzen du kandela, farola eta kinkiekin nola moldatzen ziren.

22. Argindarra baserrira sartu zutenekoa

- **Erref:** ERR-001/031
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 01:11:29. **Bukatu:** 01:13:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Izeba-osaben baserrira, beldurrak beldur eta mesfidantzak mesfidantza, argindarra sartu zuten azkenean. Hura izebaren harridura! Izan ere, alde handia baitzen etxe barruan argindarra eta ura izan edo ez. Begoñak eta bere familiak aurrerapen bi horiek kaleko etxean izatetik baserrian gabe bizitzen ohitzera pasa behar izan zuten.

23. Baserriaren alde onak eta txarrak

- **Erref:** ERR-001/032
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 01:13:26. **Bukatu:** 01:14:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Gerraostean baserrira ezkontzearen alde onak eta txarrak

24. Emakumea galtzak jantzita!

- **Erref:** ERR-001/034
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 01:15:46. **Bukatu:** 01:17:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Tolosan zabaldu omen zen behin, emakume bat ikusi zutela galtzak jantzita. Disparatea zirudiena munduko gauzarik normalena bihurtu zen handik ez askora.

25. Bidean oinetakoak jantzi eta erantzi

- **Erref:** ERR-001/035

- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 01:17:39. **Bukatu:** 01:18:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Bidean oinetakoak jantzi eta erantzi ibiltzen ziren Begoña-eta. Kalera heldu aurretik janzteko, zapatak eramango zituzten. Baserrira bueltan itzultzerako, aldiz, zapatilak edo abarkak.

26. Aitonak galtza pare bakarra

- **Erref:** ERR-001/038
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 01:22:16. **Bukatu:** 01:24:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Amak sarritan gurasoei buruz kontatuak esaten ditu Begoñak. Galtza pare bakarra omen zuen aitonak, eta hamaika komeria ibiltzen omen zuen, ageriko eskasiak disimulatu nahian. Amonak erosi omen zion bigarren galtza pare, gerezi mordoa bildu eta haiek guztiak plazan salduta ateratako diruarekin.

27. Etxaldekoak eta maizterrak

- **Erref:** ERR-001/039
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 01:24:28. **Bukatu:** 01:25:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak

Laburpena:

Bere izeba bati gertatua dela kontatzen du Begoñak. Maila sozial altuagoko mutil batekin maitemindu omen zen eta mutilaren familiak ez omen zuen harremana begi onez ikusi. Halatan, mutilak bere buruaz beste egin zuen, eta Begoñaren izeba, moja sartu.

28. Seme jatunarena

- **Erref:** ERR-001/040
- **Iraupena:** 0:03:51. **Hasi:** 01:25:55. **Bukatu:** 01:29:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Garai batean gazteen ezkontzak zenbateraino izaten ziren gurasoek aurrez erabakiak edo baldintzatuak galdetu, eta pasadizo polita etorri zaio gogora Begoñari, aita-seme jatun pare protagonista duena.

29. Errenteriakoa sentitzen naiz

- **Erref:** ERR-001/043
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 01:31:17. **Bukatu:** 01:32:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Hamalau urterekin herritik alde egin behar izan eta itzultzeko aukerarik izan ez zuen arren, Errenteriakoa sentitzen da Begoña

30. Txikitako oroitzapen gozoak

- **Erref:** ERR-001/044
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 01:32:31. **Bukatu:** 01:34:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Errenteriako haur garaiko oroitzapen zoragarriak dituela dio Begoñak. Jostatzea asko gustatzen omen zitzaion, eta edozertan ibiltzen zen.

31. "Haria, mataza, loria" sokasaltorako kanta

- **Erref:** ERR-001/045
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 01:34:14. **Bukatu:** 01:34:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

Laburpena:

<p>Sokasaltoan aritzeko kanta abesten du.</p>

Transkripzioa

- Ze kanta izaten zenuten ordun sokasaltuan? Gogoratzen al zea?
- Jesus! Makiña bat bai kantatzen giñun. Ze kantatzen giñun ba?
- Sokasaltuan: "Haria, mataza, loria". Geo...
- Nola? Nola?
- "Haria, mataza, loria. Haria, mataza. Haria! Haria, mataza, loria". Aurrena hiru salto, gero bi, ta gero bat. Ta gero "Haria! Haria! Haria!"
- Ta hor salto ta salto ta salto.
- Salto ta salto. Galtzen zunak sokan eraittea.

32. "pinis pinis terrosino"

- **Erref:** ERR-001/046
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 01:34:54. **Bukatu:** 01:35:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Ume katak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Sokasaltoan aritzeko kantua abesten du.

33. "Tengo una muñeca vestida de azul"

- **Erref:** ERR-001/047
- **Iraupena:** 0:00:12. **Hasi:** 01:35:31. **Bukatu:** 01:35:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Ume katak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Sokasaltoan aritzeko kantua abesten du.

34. "Este corro es un jardín"

- **Erref:** ERR-001/048
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 01:35:43. **Bukatu:** 01:37:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Ume katak
- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Espainiako Bigarren Errepublika ezarri zen arte gaztelera hutsean irakasten zen eskolan, eta hurrek ikasten zituzten katak ere halakoxeak ziren. Behin Errepublika ezarrita, aldiz, euskara hutsean ikasteko aukera eskaintzen zuen eskolara bidali omen zituen aitak Begoña eta anai-arrebak. Bertan, kargu hartzen omen zieten gaztelera eginez gero.

35. Txirrina jotzen

- **Erref:** ERR-001/049
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 01:37:50. **Bukatu:** 01:39:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Etxeetako zein eskolako txirrinekin izandako gora-beherak.

36. Telefonoarekin jostatzen

- **Erref:** ERR-001/050
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 01:39:05. **Bukatu:** 01:40:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Telefono deiak eginez makina bati adarra jotakoa omen da Begoña.

37. Lixagailua lurrera

- **Erref:** ERR-001/051
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 01:40:08. **Bukatu:** 01:41:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Haurrak zirela, aitaren zurgindegiko lixagailua lurrera bota zutenekoa kontatzen du Begoñak.

38. Barandatik behera erori

- **Erref:** ERR-001/052
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 01:41:35. **Bukatu:** 01:42:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Begoñaren anaia barandan behera jaisten omen zen lehendabiziko solairutik sоторa. Begoña horretan saiatu omen zen behin, eta baita beheraino erori ere, aitaren lantegiko langile guztien bizikleten gainera. Ez omen zuen minik hartu, baina bizikletaren bat edo beste gorpila okertuta geratu omen zen.

39. Abeslari eta musikari familia

- **Erref:** ERR-001/053
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 01:42:50. **Bukatu:** 01:45:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Begoñaren aita eta anaia zaharrena abeslariak omen ziren, solistak. Baritonoa bata, eta baritono baxua bestea. Alejandro, aldiz, anaietan bigarrena, txistulari ezagun askoa izan zen, gazterik hil bazuten ere. Begoñak jaso du musikarekiko zaletasuna, baina belarri ona izanagatik ahotsa kaskarra zuela esan zion behin anaia zaharrenak, eta ez omen zuen bide horretatik aurrera egin.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com